

BERRIA (2006-02-16)

'No'-tik 'ez'-era, errazago

WWW.IKASBIL.NET'. HABEk webgune berri bat garatu du, orain arte sakabanatuta zeuden zerbitzuak batu eta euskara ikasleei baliabide didaktikoak eskuragarriago jartzeko

UNAI ZUBELDIA - DONOSTIA

Nor, nori, nork-ekin etsita dauden euskara ikasleek euskararen aberastasunaz gozatzeko beste euskarri bat dute: www.ikasbil.net. Askorentzat deabru itxurakoa den ditxosozko nor-nori-nork hori ere errazago ikasteko aukera emango du HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak garatutako webgune berriak. www.habe.euskadi.net webgunearen adar bat izango da www.ikasbil.net. Atzo aurkeztu zuten Donostian.

Helburua bikoitza da: sakabanatuta zeuden euskara ikasleentzako zerbitzuak webgune bakarrean biltzea eta euskaltegiei eta ikasleei baliabide egokiz hornitzeko bitarteko arin eta dinamikoagoa eskaintzea. 8.000 eduki didaktikotik gora daude atarian: idatziak, entzungaiak, bideoak, irati nobelak, ipuinak, ariketak... Une jakin batean kakotu aditzak zer esan nahi duen ez dakigula? Hiztegiak ere eskura daude. Arauak, ikasleen ohiko galderak, HABEren liburutegia, hemeroteka, aisialdirako tresna eta albisteak, bilatzaileak... Horiek guztiak ere bai. Euskaraz trebatzeko eta euskararen inguruko informazioa lortzeko tresna da webgunea. Izan ere, ariketa, hiztegi eta arauetz gain, besteak beste, euskarazko kultur emanaldiei, euskaltegiei, deialdiei eta matrikulazio epeei buruzko informazioa ere eskainiko du atariak. Ikas-materialak, baliabideak eta informazioa. Horiek dira atari berriaren hiru ardatzak. Nor edo zer? Euskara ikasteko eta lantzeko tresna. Nori? Ikasleei eta irakasleei. Nork? HABEk. Nor-nori-nork ikasten hasteko, euskara ikasten eta gozaten hasteko, egoera baten aurrean ikasleei no esan beharrean ez esaten laguntzeko tresna da www.ikasbil.net.